Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko martxoaren 6a, astelehena — 44 — Lunes, a 6 de marzo de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## PASAIAKO UDALA

*Behin betiko onarpena alegaziorik aurkeztu ez delako.*

Udalbatzak, 2022/11/29ko osoko bilkuran, Obra txikien aurretiazko jakinarazpena arautzeko udal ordenantzari hasierako onarpena emateko erabakia hartu zuen. Erabaki hori jendaurrean jarri zen, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2023/01/04ean argitaratu eta biharamunetik hasita, ordenantza aztertu, eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko epea eta aldez aurreko entzunaldia amaituta, ez da inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, Udal Idazkaritzak emandako ziurtagirian ageri denez; beraz, erabaki hori behin betiko onartutzat jotzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta, beraz, osorik argitaratzen da 75.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Ondorioz, ordenantza hori indarrean sartuko da 65.2. artikuluan aurreikusitako epea pasatzen denean.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.3 artikuluan eta 1998ko uztailaren 29ko 46/1998 Legearen 10.B artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Pasaia, 2023ko otsailaren 20a.—Alkatea. (1304)

*Obra txikien aurretiazko jakinarazpena arautzeko udal ordenantza.*

Lizentziak ematea da toki-administrazioak herritarren jardueran esku hartzeko funtsezko kasuetako bat, prebentzio-kontroleko egintza den aldetik, administratuak lehendik duen eskubide bat deklaratzen baitu.

Udal honek egokitzat jotzen du obra txikiko lizentzien eskaera, tramitazio eta exekuzioaren kontrola arautzea, eta, horren barruan, kategoria berri bat ezartzea, obra txikien komunikazioa izenekoa. Kategoria berri hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.5 artikuluan jasotzen da, eta egikaritzeari dagokionez, Hirigintza-ordenamenduan ahalik eta eragin txikiena dutelako aldez aurretik udalari interesdunaren idatzizko jakinarazpena baino behar ez duten obretan aplikatuko da. Halaber, 1997ko urriaren 31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako Pasaiako Arau Subsidiarioen 30.4 artikuluak ahalbidetzen du obra txikien kasurako lizentzia aurretiazko jakinarazpenarekin ordeztea, eragin eta ondorio arineko lanen kasuan.

Ordenantza honekin, beraz, Pasaiako Udalak Hirigintza-baimenen izapideak azkartu nahi ditu, hiritarraren itxaron denborak eta administrazioa izapideak murriztuz. Aurretiazko jakinarazpe-

## AYUNTAMIENTO DE PASAIA

*Aprobación definitiva al no haberse presentado alegaciones.*

Habiéndose expuesto al público el acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación, en sesión de fecha 29/11/2022 de aprobación inicial de la ordenanza municipal reguladora de la comunicación previa de obras menores, por plazo de treinta días, a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa que tuvo lugar con fecha 04/01/2023, para que el mismo pudiera ser examinado y poderse presentar las reclamaciones y sugerencias que se considerasen oportunas.

Y resultando que, finalizado el referido plazo de exposición al público y audiencia previa, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, según consta en el certificado emitido por la Secretaría municipal, se considera definitivamente aprobado dicho acuerdo de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, por lo que se publica íntegramente a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en el artículo 70.2, entrando en vigor la mencionada ordenanza, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en los artículos 112.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y 10.b) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Pasaia, a 20 de febrero de 2023.—La alcadesa. (1304)

*Ordenanza municipal reguladora de la comunicación previa de obras menores.*

La concesión de licencias es uno de los supuestos esenciales de intervención de la Administración local en la actividad de la ciudadanía, como acto de control preventivo que declara un derecho que ya tiene la persona administrada.

Este Ayuntamiento considera oportuno regular la solicitud, tramitación y control de ejecución de licencias de obra menor, estableciendo una nueva categoría, denominada comunicación de obra menor. Esta nueva categoría, recogida en el artículo 207.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se aplicará, en cuanto a su ejecución, a aquellas obras que por su mínima incidencia en el ordenamiento urbanístico sólo requieran previamente de la comunicación escrita del/a interesado/a al Ayuntamiento. Asimismo, el artículo 30.4 de las Normas Subsidiarias de Pasaia, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 31 de octubre de 1997, permite sustituir la licencia por una comunicación previa para el caso de obras menores con efectos y consecuencias leves.

Con esta ordenanza, por tanto, el Ayuntamiento de Pasaia pretende agilizar la tramitación de las autorizaciones urbanísticas reduciendo los tiempos de espera y los trámites administra-

EK\CV GAO-I-2023-01304

narekin, hiritarrak ez du lizentzia eskuratu arte itxaron beharko, eta aurkeztearekin batera abiarazi ahalko ditu lanak. Horrela, Orain arteko itxaron denborak desagertuko dira, eta lanak egiteko epeak azkartu.

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honen xedea da obra txikiak egiteko aurretiazko jakinarazpenaren araubidea erregulatzea, Hirigintza-kudeaketa eta diziplinari dagokionean.

*2. artikulua. Definizioa.*

Ordenantza honen ondorioetarako, obra txikien jakinarazpenean sartuta daudela ulertuko da aldez aurreko lizentziatik salbuetsita dauden obra txikiak, Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 207.5 artikuluan, edo hura ordezten duen araudian, jasotakoak.

Nolanahi ere, aurretiazko jakinarazpen erregimenean dauden lanek ez dute eraginik izango higiezinaren egituran edo funtsezko elementuetan, eta ez ditu aldatuko eraikinaren bolumena, erabilera, instalazio orokorrak, erabilera komuneko zerbitzuak edo etxebizitza eta lokal kopurua, eta ez dute eraginik izango kanpoko diseinuan, ez eta lehendik dauden eraikin eta instalazioen segurtasunean ere.

*3. artikulua. Aplikazio eremua.*

1. Honako hauek dira obra txikiko jakinarazpen-kasuak:

a. Etxebizitza eta lokalen barnealdea eraberritzeko obrak, baldin eta barneko espazioen banaketetan, egiturazko elementuetan, ur eta gas kanalizazioetan edota kanpoko fatxadetan eraginik ez badute.

b. Kanpoko ateak eta leihoak ordeztea, dauden elementuen tipologia, tamaina, zatikatzea, kolorea eta ezaugarri guztiak errespetatuz, betiere esku-hartze isolatuak badira, eta ez fatxadetako jarduketa kolektiboak. Kasu hauetan, jabe-erkidegoarena akordioa aurkeztuko da, leihoen tamaina materiala eta kolorea dela eta onartutako irizpideak zehaztuko dituena.

Balkoien itxiturak baztertuta daude, eta berariazko araudian jasotakoaren arabera arautuko dira.

c. Segurtasun-baldintza orokorretan edo sare orokorretarako hartuneetan eraginik ez duten instalazioak konpontzea edo berritzea, fatxadetan kokatutakoak salbu.

d. Fatxada edo estalkitik erortzeko arriskuan dauden elementuak erretiratzeko lanak. Ez dira hala kontsideratzen fatxadako elementuak berroneratu eta birgaitzeko lanak. Halako lanen aurretiazko jakinarazpena jaso ostean, Udalak fatxada birgaitu edo berroneratzeko lanak egiteko dagokion espedientea izapidetuko du.

*4. artikulua. Baztertutako kasuak.*

1. Honako lanak ezingo dira aurretiazko jakinarazpenaren bidez izapidetu:

a. Inbentariatutako edo katalogatutako eraikinetan egiten diren lanak.

b. Lurzoru ez urbanizagarrian kokatutako eraikinetan egitekoak diren lanak.

c. Aplikatzekoa den araudiaren arabera antolamenduz kanpokotzat kalifikatutako eraikinetan egiten direnak.

2. Egurrezko egitura duten eraikinen kasuan, eskatzaileak teknikari eskumendunaren ziurtagiria aurkeztuko du eskaerarekin batera, jarduketak egituraren segurtasuna kaltetuko ez duela ziurtatzen duena.

tivos de la ciudadanía. Con la comunicación previa, la ciudadanía no tendrá que esperar a la obtención de la licencia y podrá iniciar las obras con la presentación. Así desaparecerán los tiempos de espera existentes hoy en día, y se acelerarán los plazos de ejecución de las obras.

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de esta ordenanza es regular el régimen de comunicación previa para la ejecución de obras menores, en materia de gestión y disciplina urbanística.

*Artículo 2. Definición.*

A los efectos de esta Ordenanza, se entenderán incluidas en la comunicación de obras menores las obras menores exentas de licencia previa, recogidas en el artículo 207.5 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, o normativa que la sustituya.

En todo caso, las obras en régimen de comunicación previa no afectarán a la estructura o elementos esenciales del inmueble, ni alterarán el volumen, uso, instalaciones generales, servicios de uso común o número de viviendas y locales del edificio, ni afectarán al diseño exterior ni a la seguridad de los edificios e instalaciones existentes.

*Artículo 3. Ámbito de aplicación.*

1. Supuestos sujetos al régimen de comunicación de obra menor:

a. Obras de reforma interior de viviendas y locales que no afecten a distribuciones de espacios interiores, elementos estructurales, canalizaciones de agua y gas o fachadas exteriores.

b. Sustitución de puertas y ventanas exteriores, respetando la tipología, tamaño, fragmentación, color y todas las características de los elementos existentes, siempre que se trate de intervenciones aisladas y no de actuaciones colectivas en fachadas. En estos casos, se deberá adjuntar el acuerdo comunitario de la copropiedad, que indique los criterios aceptados en relación al material, formas y colores de las ventanas.

Se excluyen los cierres de balcones, que se regularán según lo dispuesto en la normativa específica.

c. Reparación o renovación de instalaciones que no afecten a las condiciones generales de seguridad o acometidas a redes generales, salvo las ubicadas en fachadas.

d. Retirada de elementos con riesgo de caída de la fachada o cubierta. No se consideran obras de regeneración y rehabilitación de elementos de fachada. Una vez recibida la comunicación previa de este tipo de obras, el Ayuntamiento tramitará el correspondiente expediente de obras de rehabilitación o regeneración de la fachada.

*Artículo 4. Supuestos excluidos.*

1. No se podrán tramitar mediante la comunicación previa las siguientes obras:

a. Obras en edificios inventariados o catalogados.

b. Obras en edificios ubicados en suelo no urbanizable.

c. Obras en edificios calificados como fuera de ordenación de acuerdo con la normativa aplicable.

2. En el caso de edificios con estructura de madera, el/la solicitante acompañará a la solicitud un certificado de técnico competente que acredite que la actuación no perjudicará la seguridad de la estructura.

EK\CV GAO-I-2023-01304

*5. artikulua. Ereduak.*

Aurretiazko jakinarazpena udalak horretarako prestatutako txantiloi eta ereduaren arabera egingo da. Ez dira baliozkoak izango bestelako eskaerak.

Aipatutako edozein obra egiteko bide publikoa okupatu behar bada, berariaz eskatu beharko da egintza horretarako baimena.

*6. artikulua. Hondakinen kudeaketa.*

Obretan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eraikuntzako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

Hori egiten dela bermatzeko, eskatzaileak obra amaitu ostean hondakinak egoki kudeatu izanaren ziurtagiria gorde beharko du, Udalak ikuskapena egin ahal izateko, dagokionean.

*7. artikulua. Zergak eta tasak.*

Obra txikiaren aurretiazko jakinarazpena obra txiki arruntzat hartuko da, dagozkion tasak eta zergak likidatzeari dagokionez, eta horien zenbatekoa ordenantza fiskaletan araututakoa izango da.

Obrak egiterakoan aurkeztutako aurrekontuan aldaketaren bat gertatzen bada, eskatzaileak obraren benetako kostua aitortu beharko du obra amaitzen denean, dagokion likidazio osagarria egin ahal izateko.

Udal-zerbitzuek egiaztatu ahal izango dute adierazpen horiek egiazkoak direla, eta obrak egiten parte hartu duten pertsona guztiei eskatu ahal izango diete aurrekariak, ziurtagiriak eta kostua zehazteko beste edozein dokumentu.

*8. artikulua. Prozedura.*

Obrak egin aurretik, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Udaleko Erregistroan:

1. Obra txikiak jakinarazteko eskabidea. Eskabide hori obraren titularrak edo haren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko da, eta bertan gutxienez datu hauek adieraziko dira:

a) Egin beharreko obraren titularraren identifikazio- eta harreman-datuak.

b) Obraren titularraren legezko ordezkariaren identifikazio- eta harreman-datuak.

c) Obrak egingo diren lekuaren datuak eta obra horien deskribapena.

2. Egin beharreko obra guztien aurrekontua, esku hartuko duten gremio guztiak barne.

3. Fatxadetan ateak eta leihoak ordeztuz gero, itxituren ezaugarriak ikus daitezkeen egungo egoeraren argazkia aurkeztuko da (gutxienez 15x20 cm). Itxitura berriek ezaugarri horiek mantendu beharko dituzte, eta ezingo dira inola ere aldatu.

Artikulu honetan adierazitako dokumentazioa biltzen ez duten eskabideak ez dira onartuko.

*9. artikulua. Aldaketak.*

Obrak irauten duen bitartean egin nahi den edozein aldaketa aldez aurretik jakinaraziko zaio Udalari, eta dagokion administrazio-prozedura bete beharko da.

*Artículo 5. Modelos.*

La comunicación previa se realizará conforme a la plantilla y modelo habilitados al efecto por el Ayuntamiento. No serán válidas otras instancias.

En caso de necesidad de ocupación de vía pública para la realización de cualquiera de las obras mencionadas, deberá solicitarse autorización expresa para ello.

*Artículo 6. Gestión de residuos.*

Los residuos de construcción y demolición generados en las obras deberán gestionarse de acuerdo con lo establecido en el Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demás normativa de aplicación.

A tal fin, la persona solicitante deberá conservar el certificado de la correcta gestión de los residuos una vez finalizada la obra, a fin de que el Ayuntamiento pueda realizar, en su caso, la correspondiente inspección.

*Artículo 7. Impuestos y tasas.*

La comunicación previa de la obra menor se considerará como obra menor ordinaria a efectos de liquidación de las tasas e impuestos correspondientes, y su importe será el regulado en las ordenanzas fiscales.

Si durante la ejecución de las obras se produjera alguna modificación en el presupuesto presentado, la persona solicitante deberá declarar el coste real de la obra a la finalización de la misma, a fin de proceder a la correspondiente liquidación complementaria.

Los servicios municipales podrán comprobar la veracidad de estas declaraciones y requerir a todas las personas que hayan participado en la ejecución de las obras los antecedentes, certificaciones y cualquier otro documento que permita determinar el coste.

*Artículo 8. Procedimiento.*

Con carácter previo a la ejecución de las obras, deberá presentarse en el Registro del Ayuntamiento la siguiente documentación:

1. Instancia de comunicación de obras menores. Esta solicitud deberá presentarse suscrita por el titular de la obra o su representante legal, y en ella se indicarán, al menos, los siguientes datos:

a) Datos de identificación y contacto de la persona titular de la obra a realizar.

b) Datos de identificación y contacto del/a representante legal del/a titular de la obra.

c) Datos del lugar de ejecución de las obras y descripción de las mismas.

2. Presupuesto de todas las obras a realizar, incluidos todos los gremios implicados.

3. En caso de sustitución de puertas y ventanas en las fachadas, se presentará una fotografía del estado actual en el que se aprecien las características de los cerramientos (mínimo 15x20 cm). Los nuevos cierres deberán mantener estas características y en ningún caso podrán ser modificados.

No se admitirán instancias que no reúnan la documentación indicada en este artículo.

*Artículo 9. Modificaciones.*

Cualquier modificación que se pretenda realizar durante la ejecución de las obras será comunicada previamente al Ayuntamiento y deberá someterse al procedimiento administrativo correspondiente.

EK\CV GAO-I-2023-01304

*10. artikulua. Indarraldia.*

Aldez aurreko jakinarazpen honek bere xedea gauzatzeko autorizazioa ematen du, Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkezten den egunetik aurrera. Baldintzaren bat betetzen ez bada, udal-administrazioak akatsa zuzentzeko eskatu ahal izango du, eta obrak hasteko epea eten egingo da.

*11. artikulua. Lanen ikuskapena.*

1. Udal langileek, eginiko obra horiek aurkeztutako obra txikiaren aurretiazko jakinarazpenean daudenekin bat datozela egiaztatzeko, bertatik bertara ikuskatu ahal izango ditu lanak, betiere etxebizitzaren bortxaezintasunari kalterik sortu gabe.

2. Obra txikia jakinarazteko agiria obra egiten den lekuan utziko da, egiaztapena egiten den unean aztertu ahal izateko.

Eskatzaileak, edo dokumentu horren edukitzaileak, obrak ikuskatzeko ardura duten teknikariek edo agenteek eskatzen dioten guztietan erakutsi beharko du, eta errekerimendu hori betetzen ez bada, agintaritzaren agenteei desobeditzeagatik dagozkion erantzukizunetan eroriko da.

3. Udalak obrak berehala gelditzeko agindu ahal izango du, baldin eta, obrak hasi ondoren, ikusten bada aurkeztutako jarduketa Hirigintza-lizentziari lotuta dagoela, edo lizentzia hori aldez aurreko jakinarazpen honetan adierazitako baldintzen aurka gauzatzen ari dela, hori guztia aplikatzekoa den Hirigintza-legeriarekin bat etorriz, eta sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboei kalterik egin gabe.

4. Ikuskapen funtzioak betetze aldera, Udalak gutxienez aurkeztutako aurretiazko jakinarazpen guztien % 10ari bertaratutako ikuskapena egingo die. Horretarako, hiru hilean behin zozketaz hautatuko dira bertaratutako ikuskapena egingo zaien lanak. Ikuskapena Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 legeak xedatutakoaren, edo hura ordezten duen araudian xedatutakoaren arabera egingo da.

*12. artikulua. Laneko arriskuen prebentzioa eta segurtasuna.*

Lanak egitean, eraikuntzaren jardunbide egokiak aholkatzen dituen neurriak hartuko dira, baita Eraikuntzako Obretako Segurtasun eta Osasunari buruzko legerian eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusitakoak ere.

Era berean, obren ondorioz bide publikoan eta ondoko gainerako espazioetan sortzen diren kalteak konpondu beharko dira, eta gune horiek behar bezala garbitu beharko dira.

*13. artikulua. Baldintza orokorrak.*

Obra txikiaren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu eta erregistratzea indarrean dagoen legeriaren arabera nahitaezkoak diren gainerako baimenei kalterik egin gabe ulertuko da.

Obra txikiaren aurretiazko jakinarazpena jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik egin gabe ematen dela ulertuko da.

Lanak astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 8:00etatik 13:00etara egin beharko dira.

*14. artikulua. Epeak.*

Obra txikiko jakinarazpenean ez bada besterik ezartzen, 30 egunekoa izango da hasteko epea, eta 6 hilabetekoa amaitzekoa.

Epe horiek igarotakoan, udalak egindako ezagutza-egintzak balio guztia galduko du, eta interesdunak beste jakinarazpen bat egin beharko du obrak hasteko edo egiteko.

*Artículo 10. Vigencia.*

Esta comunicación previa autoriza para la realización de su objeto desde el día de su presentación en el Registro General del Ayuntamiento. En caso de incumplimiento de alguna de las condiciones, la Administración municipal podrá requerir la subsanación del defecto, suspendiéndose el plazo para el inicio de las obras.

*Artículo 11. Inspección de las obras.*

1. El personal municipal, al objeto de comprobar que las obras ejecutadas se ajustan a la comunicación previa de obra menor presentado, podrá inspeccionar los trabajos in situ, sin perjuicio de la inviolabilidad de la vivienda.

2. El documento de comunicación de la obra menor se depositará en el lugar de realización de la obra para su examen en el momento de la comprobación.

El/la solicitante o quien tenga este documento, vendrá obligado a exhibirlo siempre que le sea reclamado por el personal técnico o agentes encargados de la inspección de obras, incurriendo en caso de incumplimiento de este requerimiento en las responsabilidades consiguientes por desobediencia a los agentes de la autoridad.

El Ayuntamiento podrá ordenar la paralización inmediata de las obras, cuando, iniciadas las mismas, se detecte que la actuación presentada está sujeta a licencia urbanística, o que la misma se está ejecutando en contra de las condiciones señaladas en la presente comunicación previa, todo ello de conformidad con la legislación urbanística aplicable, y sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar.

4. En el ejercicio de sus funciones de inspección, el Ayuntamiento realizará una inspección presencial al menos al 10 % del total de las comunicaciones previas presentadas. Para ello, cada tres meses se seleccionarán por sorteo los trabajos que serán objeto de inspección presencial. La inspección se realizará conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, o normativa que la sustituya.

*Artículo 12. Prevención de riesgos laborales y seguridad.*

En la realización de los trabajos, se adoptarán las precauciones que aconsejen la buena práctica de la construcción, así como las previstas en la legislación sobre Seguridad y Salud en las Obras de la Construcción, y demás normativa vigente.

Asimismo, se estará obligado a reparar los desperfectos que como consecuencia de las obras se originen en la vía pública y demás espacios colindantes, así como a mantener éstas zonas en las debidas condiciones de limpieza.

*Artículo 13. Condiciones generales.*

La solicitud y registro de la comunicación previa de obra será entendida sin perjuicio de las demás autorizaciones que en su caso sean preceptivos conforme a la legislación vigente.

La comunicación previa de la obra menor se entenderá otorgada salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

Los trabajos deberán realizarse de lunes a viernes de 8:00 a 20:00 horas y los sábados de 8:00 a 13:00 horas.

*Artículo 14. Plazos.*

Cuando en el comunicado de obra menor no se fijara el plazo para su iniciación y ejecución, se entenderá que el mismo es de 30 días para el inicio y 6 meses para su finalización.

Transcurridos estos plazos perderá todo valor el acto de conocimiento realizado por el Ayuntamiento debiendo la persona interesada proceder a nueva comunicación para iniciar o realizar obras.

EK\CV GAO-I-2023-01304

*15. artikulua. Arau hausteak.*

Arau hausteak Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legean, edo hura ordezten duen arauan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

*Artículo 15. Infracciones.*

Las infracciones se tramitarán de acuerdo con lo establecido en la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, o norma que la sustituya.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2023-01304